

ONDO IRABAZIA (D. KLAUDIO'ri)

Orixe ziur izan zan Gallastegi tar On Klaudi'ri joan dan Urtarrilla'ren 29'an egindako illeta, Bilbo'ko San Anton'en Eleiza Nagusian! Egun orren goizean jakin neban gure On Klaudio abade andia, Euzkera-zale jakintsu ta entzutentsua, "ZER", aldizkari onen idazle ta olerkari trebea, 81 urtekoa, il zala.

Beingoan bere illetako Mezea batera esaten joateko asmoa artu neban.

Asmoa nebanez, joan be joan nintzan.

Iñoz iñori egin leio omen andiagorik?...

Gitxitan uste dot. Esan dogun eguneko zazpi ta erdietan San Anton'en jazo zanak Erroma'ko Kaise-rrek, errien irudimenez, Olimpo'ra igotean, goratze egi-tea zirudian. Eleizbarruti'ko Gotzain Jauna, 100 bat abade Mezea batera emoten egozala, Ardanza Lenda-karia bere andreagaz aurrean Eleiz-tokia bete beterik. Ni bertara eldu nintzan ordubete lenago. Eta sarturik itandu neban nun ete egoan gorpua. Altara aurrean egoala esan eusten. Biotz zarrazta andia artu neban emen munduan izan zanaren eta orain Goian Dagona-ren gorpua begiz ikusita. Bai egiazko gizaundia gogoz eta gorputzez gure On Klaudio onetsiaz 163 kiloz astuna ta 1,80 neurkin luzea! Orain il-kutxan, il jantziz estaldurik, arpegi odolbako zuri-zuria biotz ikara emoteko eran. Ene Klaudio ona, ain adoretsua ta kemenez bete, zelan zagoz orain, gizona! ...Badakigu berbiztuko zarala Jesus-Jainko Irakasle onagaz... Osterantzean dana bertan bera itxiteko zera da zure itxurea...

Nik eleizkizun onetan iru oarkizun goragarri ainbeste esan gura dabenak zomatu nituan: bertsolariak, iru txistularien jardun-aldia ta eleizako abesbatza. Bertsolariak buruz bi zireala esan daigun, bat Zeberio'koa, beste Elorrio'tarra; biok emon eben ekiñaldi ederra. On Klaudi'ren itxuraldi batzuk gure Bizkaiera garbian, euskalkirik aberatsenean, bertsolarien neurkera berarizkoaz, doiñu atseginkorraz, gizon gazteen abots ederraz. Zeberio'koak, batez be esan ebazan dardara naastu baiña entzungarriak. Ikusten zan biek zireala bertsolarien ertilanean maisu osoak.

San Anton Eleizako Abesbatza. Bizkai guztian ta Bilbo'n bertan be ospetsua izanez, jakintzat artu bear

geunke ondo abestuko ebala. Baiña nik emen bere jarduera bat banan gaillendu gura neuke: Lenengo irakurgai ostan abestu ebana, Back egillearena, gizon ta andren Iau abotsez: benetan lilluragarriak ziran eresi igesteak, polifonizko eresi soiñuak. Eta zer esango dogu Mezerdi osteko txistularien jardun-alditzaz? Iru ziran eta danboliñariagaz lau. "Mendi-Negarraz" lango eresi goibel samurra jo eben, ez bardiñez, bakoitxak bere soiñuaz baiño. Gero, Jaunartzean, Abesbatzak Aita Irugarrizaga'ren eresi batzuk iru edo lau Bakar abeslaria amabost, amazazpi urteko neskatillaren bat zan. Bai abots, eder, garbi, ugaritsua! Aren tango abots garden garbiagorik urrut ikuzkiñetan be ezta entzuten.

Zelan ez aitatu idazlan onetan gure Gotzain Larrea'ren berbaldi mamintsua? Bere berbaldian Meza-zuzendari Gotzain Jaunak Goian Dagon On Klaudio'ren kristiañau onoimen gaillenduak, aren lan-zeregin erlejiño ta gizarterako onuratsuak. Eta esan euskunez, Gallastegi'tar On Klaudio lenengo abade izan zala Bizkai-URI-Buru, Bilbo'n Meza Nagusia Euskeraz aundikiro egin ebana.

Illeta elezikizuna San Antonen amaituta, Gallastegi'tar On Klaudio'ren Gorpua'ri Agur egin geuntson "Agur Jaunak" abestiaren soiñuz. Bilbo'ko Udaletxe'ko talde txistulariak jo eban Boni Fernandez zuzendari dala.

Oraindiño gudea gura dabenak ukubillak jaso ta erakutsiz "Eusko Gudariak" abestia abestu eben. Guda zelaitara joan daitezala, eurok lenengo. Orain 50 urte baiño geiago dirala Errepublikanuekaz bat egin da egon gintzazan an geure Euskadi'ri nortasuna emoteko, eta badakigu zer dan ori. Gure Jaun Erria gertu egon da ta beti izango da asteko lanean Euskadi Alkartu ta Suiza lango baten alde. Baiña ez su izkilluz gerretan urkolagunak ilten. Ori ez. Esan daigun azkenean Jainkoaren ondora joan jakun gure On Klaudio ona, gizon eragille itzelezkoa zala. Or itzi euskuzan ta or dagoz bizi-bizirik Parrokien Mixiolari Lekaimeak ta Jose Antonio Retolaza'gaz irasi eban umientzako "Kili-kili" aldizkaria ta lana.

LETONA'K

